ARETXABALETAKO IBARRA KIROLDEGIAN, KIROL ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Aretxabaletako Udalaren kirol politika herritar guztiei bizi kalitate osasuntsua bermatzera zuzenduta dago, kirola eta ariketa fisikoak egiteko herritar bakoitzak eta guztiek dituzten beharrei erantzunez.

Politika horri jarraituz, kontratu honen helburua da Aretxabaletako udal kirol instalazioetan hainbat zerbitzu ematea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz. Kontratuaren helburu diren zerbitzuek bete beharko dituzten gutxieneko baldintzak baldintza-agiri honetan zehaztutakoak izango dira.

CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 9260000-0

Eman beharreko zerbitzuak honako hauek dira:

1. Ibarra kiroldegiaren **harrera zerbitzua** ematea baldintza agiri honetako 3. eranskinean zehaztutako egun eta orduetan.
2. Ibarra kiroldegiaren **mantenimendu zerbitzua** ematea baldintza agiri honetako 3. eranskinean zehaztutako egun eta orduetan..
3. Rokodromoaren mantentze lanak.
4. Ibarra kiroldegian, salbamendu eta **sorospen zerbitzuak** ematea, eta, bertan, horri erantsitako orubean eta saunetan jendeak jarrera egokia izan dezan zaintzea eta kontrolatzea.
5. Ibarra kiroldegian, **kirol jarduerak eta ikastaroak ematea**, gimnasioko jarduera fisikoak eta igerilekuko ur jarduerak, eta baita ere **fitness gelan aholkularitza zerbitzua** ematea ere. Egun ematen den jarduera programa, baldintza agiri tekniko hauen 1. eranskinean jasotzen da. Programa hori eskaintzaren arabera aldatu ahal izango du Udalak.
6. Udalak horrela eskatuta, beste kirol jarduera batzuk eskaintzea.
7. Kiroldegian antolatu daitezkeen beste zenbait ekitalditan (Kultur Sailetik bereziki) laguntza eta asistentzia ematea.

2.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2.1.- BETEBEHAR OROKORRAK.

a) Zerbitzuak ematea kontratuan ezarritako denboran. Zerbitzuak baldintza agiri honen arabera eta kontratua interpretatzeko Administrazioak enpresari emandako jarraibideen arabera eman beharko dira. Kontratua ezingo zaio hirugarren bati laga, ez osorik ez zati batean, Udalak berariaz horretarako baimenik eman gabe.

b) Kontratista behartuta dago zerbitzua ematen duten pertsonei 4. eranskinean jasotzen diren ordainsariak aplikatzera.

c) Behin betiko bermea horretarako ezarritako epean jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.

d) Kontratua formalizatzea baldintza agiri honetan ezarritako epean.

e) Izan daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak 15 eguneko epean jakinaraztea Udalari.

f) Arduradun-koordinatzaile bat izendatzea Udalarekin solaskide zuzena izateko. Solaskide horrek baldintza agiri honetako 2.2 atalean eskatzen den hizkuntz prestakuntza izan beharko du, internet eta ofimatika ezagutza aurreratuak, eta gutxienez 2 urteko esperientzia taldeen kudeaketan.
Bere zereginak, besteak beste, honakoak izango dira:
   - Langile bakoitzaren egutegia eta ordutegiak antolatu eta koordinatzea.
   - Langile guztien lan jardunaren jarraipena egitea.
   - Lan taldearen kudeaketa.
   - Kontratuko zerbitzu guztiei buruzko txostenak eta azterlanak egitea.
   - Jarduerak proposatu eta programatzea.
   - Erabiltzaileen gogobetetasuna ikestak egitea.
   - Udal Kirol Zerbitzuarekin koordinazioa bermatzea.

g) Lan araudiko, Gizarte Segurantzako eta 31/1995 Legeko (Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea) eta hori garatzen duten errege dekretuetako xedapenak betetzea eta baita zerga arlokoak ere, horiek ez betetzeagatik egon daitezkeen erantzukizunetatik erabat libre geldituz Udala.

h) Udal kirol zerbitzuak ezarritako koordinazio bileretara joatea, koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez. Batzuetan, koordinazio bilera horietan, ezinbestean, sorospen, harrera langileek, kirol monitoreek eta mantenimenduko langileek parte hartu beharko dute; beraz, kasu horietan, Udalak horrela erabakitakoan, derrigorrezkoa izango da langile horiek bertan egotea.

i) Zerbitzuak emateko beharrezko langileak kontratatzea. Kontratatutako langileei dagokionez, kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira, eta baita Gizarte Segurantzan alta eman izana egiaztatzeko dokumentuak ere, gehienez ere 10 eguneko epean kontratazio egunetik kontatzen hasita.

Zerbitzua esleitu zaion enpresak bere gain hartu beharko ditu gaur egun zerbitzua ematen duten langileak, eta subrogatuta gelditukо da lehiaketan emandako zerbitzuen egungo beharrei erantzuteko aurreko esleipendunek lan arloan zituzten eskubide eta betebeharrei dagokienean. Langileen kopurua eta zehaztasunak 4. eranskinean jasota ageri dira.

Adjudikatarioak, gutxienez honako orduak bete beharko ditu:

	orduak/urtean
HARRERA	4.504
SOROSLEA	4.074
MANTENU LANAK	2.705
ROKODROMOA	560
KOORDINATZAILE	1.275
GUZTIRA	13.118

Langile horien arduradun bakarra esleipenduna izango da, berak izango baititu nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak, eta bere menpeko langileekin lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.
Langileren batek lanean edozein motatako istripu edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta Udalak ez du horretan inolako erantzukizunik izango. Hori guztiori bermatzeko, gutxienez 100.000 eurorengatik aseguratu beharko du erantzukizun zibileko polizan sartuta egon beharko den "erantzukizun patronala" izeneko arriskua.

Kontratuak irauten duen bitartean langile bat ordezkatu behar baldin badago (erretiroa, heriotza, borondatezko baja enpresan, kaleratzea, elbarritasun iraunkorra...) edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat egin behar baldin bada, eskatutako profila betetzen duen ordezko langilea jarri beharko du esleipendunak.

Udalak edozein momentutan eska diezaioke betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzea.

Kontratua amaitu ondoren, Udala ez da esleipendunak kontratatutako edo berarentzako lanean dabilen langileen kargu egingo.

Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikulua betez, lizitatzaileek adierazi beharko dute esleipena jaso ezkero langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman behar da, behin kontratua esleitu eta gero.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoariaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

j) Zerbitzu hauek eskaintzerakoan udalari edo hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea. Horretarako, sor litezkeen edo zerbitzua eskaintzeak ekar ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez, 300.000 euroko kapitalaz.

k) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

l) Jarduerak udal kirol zerbitzuak ezarritako egun eta orduetan ematea (**baldintza agiri honetako 1. eranskinean zehazten dira)**, kontuan izanik ordu horiek gutxi gorabeherakoak direla 2024-2025 ikasturterako eta, Udalak horrela eskatuta, aldatu ahal izango direla. Hurrengo urteetako ordutegiak eta egutegiak aurreko urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.

m) Instalazioak irekitzen diren bitartean, kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko legez eska daitezkeen langileek egon beharko dute beti, eta, gutxienez, honako langile hauek izan beharko dira:

- Harreran, sarbideen eta informazioaren kontrolaz arduratzen den pertsona bat, kiroldegiko sarreran egongo dena.
- Sorosle 1 igerilekuan, igerilekua irekita badago behintzat.

Era berean, ahalik eta irekiera-denbora luzeenean, egin beharreko orduak kontuan hartuta, mantentze-lanetarako langileak egon beharko dira instalazioan bertan, zerbitzua gelditu edo instalazioa itxi behar izan gabe prebentziozko eta zuzenketako tratamendu lanak egin ahal izateko.

- Mantentze-lanetako pertsona bat, instalazioa irekitzen den ahalik ea denbora luzeenean.

n) Jarduerak antolatzeko udal kirol zerbitzuaren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoak exekutatu, zerrendak irakurri**,** ziurtagiriak ikasleen artean banatzea, mailaz mailako erregistroa eraman eta jardueren egitasmoan zehaztu daitezkeenak). Horretarako, bai enpresak eta baita bertako langileek ere, datu pertsonalen babeserako legeak zehaztutakoa beteko dute.

o) Monitoreen bitartez, ikastaroa emateko behar den diziplina mantentzea, ikasleak eta beste erabiltzaile batzuk gogaitu barik, eta bertako arauak bete eta betearaztea.

p) Erabiliko den materiala muntatu eta desmuntatzea, ateratzea eta garaiz jasotzea ikastaroak emateko.

q) Kiroldegia irekitzea eta ixtea egutegian jasotako egun guztietan (3. eranskina), baita Udalak antolatzen dituen kirolekoak ez diren ekitaldiak egiten diren egunetan ere (antzerkiak, jaialdiak, herri-bazkariak, etab.), urtean gehienez 5 ekitaldirekin. Era berean, udalari lagunduko dio ekitaldi horiek egiteko instalazioak prestatzen eta ondoren biltzen.

r) Kiroldegiaren alboko futbol-zelaia irekitzea eta ixtea, egutegian jasotako egunetan (3. eranskina).

s) Erabili behar den materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta jasotzea, ikastaroak garaiz emateko. Horrekin batera kirol esparruak zabaltzeaz eta ixteaz ere arduratuko dira.

t) Langileen arteko, enpresa eta langileen arteko eta enpresaren eta Udalaren arteko harremanak jaso eta bilduko dituen egitasmoa aurkeztu eta betetzea. Bertan, enpresako eragileen arteko barne koordinazio eta kontrolaren berri emango da. Horretarako, pertsona bakoitza eta bere funtzioak definituko dira.

u) Auto-babeserako planean jasotako betebeharretan parte hartzea, Udalak adierazitakoari jarraituz.

v) Datuak babestearen arloan indarrean dagoen legeria betetzea.

w) Kiroldegiaren kudeaketarako ezarritako aplikazioa erabiltzea.

x) Informazio-sistemen funtzionamendu zuzena bermatzeko, instalazio edota eguneratze informatiko orok Aretxabaletako Udaleko informatika sailaren baimena izan beharko du, eta beti berak gainbegiratuta egin beharko da. Hori guztia, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio Udaleko informatika sailari. Era berean, egungo sisteman hardware ekipamendu edo software berria gehitu nahi baldin bada, Udaleko informatika sailak eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

y) Kontrataturiko zerbitzuak ikuskapen eta zaintzapean egongo dira etengabe, eta esleipendunak, kirol zerbitzuko arduradunek horrela eskatutakoan, egindako lanen eta zerbitzuko gorabeherei buruzko txostena aurkeztu beharko du, eta betebehar hori betetzeko beharrezko izan daitezkeen agiri guztiak aurkeztera behartuta dago, bereziki, enpresa jardueren koordinazioari eta lan segurantzari buruzkoak, guztia ere, Udalaren edozein erantzukizun subsidiario kentzeko helburuarekin. Kirol zerbitzuko arduradunek zerbitzua emango duen enpresarekin harreman errazak izan behar ditu, kontratuari dagozkion datu, xehetasun eta gorabehera garrantzitsuenen berri ahalik eta modurik eraginkorrenean izateko. Horretarako, esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Kontratuko zerbitzu guztiei buruzko txosten eta azterlanak prestatu, zerbitzuaren arduradunek horrela agindutakoan.
- Zerrenda bat aurkeztu zerbitzua emango duten langile guztien izen-abizenekin.
- Egindako ordezkapenen zerrenda aurkeztu hilero.
- Komunikazio-diagrama bat aurkeztu; bertan, zerbitzuaren arduradunarekin eta enpresarekin komunikatuko diren pertsonak agertu beharko dira, pertsona horietako bakoitzaren eginkizunak eta informazioaren kudeaketa egokirako erabiliko diren komunikazio kanalak zeintzuk izango diren zehaztuz. Enpresak, bere komunikazio planean jaso beharko du kontratu orduetan, derrigorrez, arduradun bat beti egongo dela aurkitzeko moduan gerta daitezkeen ezusteak konpontzeko. Arduradun horrekiko harremana telefono mugikor baten eta posta elektroniko helbide baten bidez egingo da.
- Ebaluazio txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, parte hartzea jardueretan, baliabide materialak…), datu kualitatiboak (herritarren asebetetze maila, jarrerak, balioespenak, genero perspektiba…) eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak.
- Ebaluazioa egiteko hainbat une aurreikusten ditu kirol sailak: asteroko ebaluazioa, hiruhilekoa eta urtekoa. Urteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira, asteroko ebaluazioa dagokion asteroko fitxa betetzean egingo da, eta hiru hilean behin ebaluazio txostenak aurkeztuko dira Udalean, eskaintza bakoitzeko txosten bat; dagozkien balioespenak egin ondoren, hurrengo hiru hilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Bertan gutxienez, eduki hauek jasoko dira:
  - Langilegoari buruzko informazio (batez ere aldaketei dagokienean).
  - Kirol jardueretako emaitzak: partaidetzak, intzidentziak.
  - Diziplina arloko gorabeherak.
  - Mantenimendu arloko arazoak.
  - Hurrengo hiru hilabeterako hobekuntza proposamenak.

2.2. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

a) Zerbitzua emango duten langileen euskara-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik,

- Udalarekin solaskide zuzena izateko izendatuko den **arduradun-koordinatzaileak** Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGAren baliokidea) egiaztatu beharko du.
- **Sorosleek, kirol monitoreek, harreragileek eta erabiltzaileekin harreman zuzena izango duten gainontzeko langile guztiek**, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Hori egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Dagokion ziurtagiria, titulua edo diploma aurkeztea, egoki den erakunde publiko edo zentro ofizialean egin eta emandakoa, edo
- Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek betetzen ez badute eskatutako hizkuntza-gaitasuna, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko beharrezko neurriak adostuko dira, herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

b) Hizkuntza ofizialen erabilera kirol jarduera taldeetan

16 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutako jarduerak euskaraz izango dira.

Helduentzako jardueretan, egon daitezkeen hizkuntza-egoerak egoki kudeatu ahal izateko, hiru hizkuntza-tipologiaren arabera funtzionatuko da:

- Ikastaroko partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera hori euskara hutsean egingo da.
- Ikastaroko partaideen erdiek baino gehiagok euskara ulertzen dutenean, jarduera hori nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, monitoreak laburpenak egingo ditu erdaraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.

- Ikastaroko partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen dutenean euskara, jarduera hori nagusiki erdaraz egingo da, eta monitoreak euskaraz esango ditu agurrak, zenbakiak, animo hitzak eta antzekoak. Gainera, euskaraz egingo die euskara ulertzen dutenei.

Irizpide horiek erabili ahal izateko, ikastaroetarako izena emateko orrietan bakoitzaren euskara mailari buruzko galdera egingo da.

c) Hizkuntza ofizialen erabilera herritarrekin eta zerbitzu hartzaileekin

Herritar eta zerbitzu erabiltzaileak artatzeko, udalak bete behar dituen hizkuntza baldintza berak bete beharko dira. Eta, horregatik,

- Lehen hitza euskaraz egingo zaie, eta hortik aurrera, beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaie.
- Jarduera taldeetan, aurreko atalean zehaztutakoaren arabera jokatuko da.
- Idatzizko erabilerari dagokionez, irizpide orokor moduan, herritar eta erabiltzaileei zuzendutako komunikazioetan (oharrak, inprimakiak, ordutegiak, ordainagiriak, errotuluak...), euskarari emango zaio lehentasuna. Horretarako, mezua hitz gutxitakoa denean eta bi hizkuntzetan grafia oso antzerakoa duenean, euskaraz idatziko da, eta ahal denean, piktogramak jarriko dira ondoan euskarazko mezuari laguntzeko. Piktogramak erabilita ere mezua behar bezain argia ez denean, edo idatzia luzea denean, ele bitan egingo da euskarari lehentasuna emanez.

d) Hizkuntza ofizialen erabilera Udalarekin

Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak euskaraz izango dira, izan harreman administratiboak (kontratu, faktura, ...), izan zerbitzua ematetik sortutakoak (txosten, bilera, memoria …).

2.3.- HARRERA ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK.

ZEREGINA

Kiroldegiko lan administratiboak eta atezaintza jarduerak burutuz kiroldegiaren kudeaketan parte hartzea.

EGITEKO NAGUSIAK:

Egiteko nagusiak bi jarduera motatan banatzen dira:

1. Instalazioko atezaintza jarduerak.
2. Ibarra kiroldegiko administrari jarduerak.

EGITEKO ZEHATZAK:

1) HARRERA:

- Kiroldegia zabaldu eta ixtea.
- Ibarra kiroldegiko erabiltzaileak kontrolatzea.
- Instalazio banaketaren informazioa ematea.
- Sarrerak saltzea.
- Eraikinaren argiak piztu eta itzaltzea.
- Goizetan alarma kentzea.
- Tornuaren funtzionamenduaren azalpena eta informazioa ematea erabiltzaileei.
- Artikuluak saltzea (txapelak, bainujantziak etab).
- Musika ekipoa piztu eta itzaltzea.
- Bozgorailuko mezuak ematea.
- Giltzen ardura, banaketa eta kontrola.
- Instalazio hornitzaileen harrera; beraien eginkizunak erraztu eta bideratzea.
- Lankideei mezuak ematea.
- Lankideak instalazio barnean lokalizatzea (telefonoz, bozgorailuz…)
- Kartelak jarri eta kentzea.
- Kiroldegi aurreko Futbol7 zelaia zabaldu eta ixtea, kiroldegiaren egutegi eta ordutegi berdina jarraituz.
- Kiroldegiko instalazioak ireki eta ixtea, bertan egiten diren kultura-ekitaldietan edo bestelako ekitaldietan (urtean gehienez 5 ekitaldi).

2) ADMINISTRARI JARDUERAK:

- Jende aurreko arreta, informazio eta argibideak ematea. (Bazkidetza informazioa, ikastaroak, alokairuak, matrikula).
- Telefonoa erantzutea.
- Posta elektronikoa jaso eta kudeatzea.
- Ibarra kiroldegiko kartelak eta informazio orriak egitea.
- Fotokopia zerbitzua ematea lankide eta monitoreei.
- Ibarra kiroldegiko aretoaren erabilera erregistratzea
- Txapelketa eta ekintza bereziei buruzko informazioa eman eta datorren jendea orientatzea.
- Bazkidetza altak eta bajak tramitatzea.
- Ikastaroetako izen-emateak tramitatu eta sisteman sartzea.
- Ikastaro altak eta bajak tramitatzea.
- Ikastaroen asistentzia kontrola monitoreen ordenagailuan zintzilikatzea.
- Alokairuetako altak eta bajak tramitatzea.
- Erremesak egin: abonatuak, ikastaroak, matrikulak, alokairuak, uda kanpainak etab.
- Hilabetero programa informatikoan abonatu, ikastaroak eta alokairuak sortzea.
- Hilabetero diru itzulketen zerrenda egin eta kirol teknikariari pasatzea.
- Hilabetero harrerako sarrera eta irteeren datuak gerenteari aurkeztea (ordainketak, itzulketak, sarrerak etab)
- Egunero diru arkeoa egin, erregistratu (planilan) eta kirol teknikariari komunikatzea.
- Itzulitako erreziboen azterketa orokorra egitea (K/K zenbakia, arrazoia etab.).
- Erreziboen inguruko zalantzak erabiltzaileei azaltzea.
- Harrerako barne protokoloak egitea eta kudeatzaileari aurkeztea.
- Postaz eskutitzak bidaltzea eta aurrez etiketak egitea.
- Bulegoko material eskaera egitea, aurrez kirol teknikariarekin adostuz.
- Hornitzaileak atenditu eta bideratzea.
- Erreklamazio eta iradokizunak jaso eta kirol teknikariari bideratzea.
- Kirol teknikariak planifikatutako lan administratiboen helburuak betetzea.
- Egunerokotasunean kirol teknikariarekin elkarlanean lan administratiboak antolatu eta egitea.
- Uda kanpainako erremesak egitea.
- Erabiltzaile bazkidetzak programa informatiboan sartzea.
- Idatziak egin eta kudeatzaileari aurkeztea.
- Ikastaroetako asistentzia kontrolen zerrenda hilabetero egitea.
- Hilabetero ikastaroetako itxaron zerrenda kudeatzea. (ikastaroak bete eta berriei deitu).
- Ikastaroetako baimenak eta kasuistikak (errelebotakoak etab) gerentziara bideratzea.
- Inkesten datuak ordenagailuan sartzea.
- Egunerokotasuneko arazo administratibo edo bestelako arazoen berri kudeatzaileari adieraztea.
- Errefortsuko administrariaren bitartez egiten den lana kontrolatu eta koordinatzea.
- Errefortsuko administrariaren bitartez kirol teknikariari lanen deskargua egitea.
- Kirol teknikariaren ikerketa eta proiektuetarako lan administratiboak egitea.
- Urte amaieran Kirol Harrera bulegoko balantze orokorra kirol teknikariarekin elkarlanean egitea (helburuen lorpena, hobetu beharreko aspektuak…)
- Ibarra kiroldegiko webgunea elikatzea: albisteak sartu, tarifa/egutegi eguneratuak webgunera igo, e.a.

2.4. SOROSLE ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK.

a) Sorosle funtzioak eta Eusko Jaurlaritzako otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua garatzen duen erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitariotik eratorritako arau guztiak betetzea eta betearaztea. Araudi horren osagarri, IBARRA kiroldegian ezarrita dagoen autokontrol plana ere bete beharko da.

b) Igerilekuan eta horri lotutako guneetan beharrezko prebentzio neurriak hartzea eta bertan egon daitezkeen erabiltzaileak zaintzea.

c) Larrialdietarako beharrezko osasun baliabideak erabiltzen jakitea eta prest eta eguneratuta izatea: uneoro prest izatea oxigenoterapia, desfibriladore automatikoa eta botikina. Gainera, sorospen lanak prestatu beharko ditu eta eguneratuta izan.

d) Udal Kirol Zerbitzuak gune horretarako ezarritako arauak ezagutzea, horiek betetzea, erabiltzaileei jakinaraztea, irakastea eta betearaztea.

e) Ondorengo jarduerak egitea:

    1. Ur azpiko robota sartzea igerilekuetan esango zaion maiztasunarekin.

2. Igerilekuko instalazioetan sorosle eta zaintza lanak egitea bermatuko duten argitasun baldintzak izateko beharrezko argiak piztu eta itzaltzea.

3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zehaztutako gune hezeetan (aldagelak, aldageletarako korridoreetan eta nasetan) beharrezko garbitasun lanak egitea, betiere, lan horiek txikiak eta arinak baldin badira. Garbitasun handiagoa egin behar izanez gero, aldagelak itxiko dira, gunea mugatuko da edota garbitasunaz arduratzen den pertsonari deituko zaio (une horretan bertan egongo balitz).

4. Spa zonaldeko eta Igerileku handiko eta txikiko osasun parametroak arriskuan jarriko lituzkeen gorabeheraren bat izanez gero (oka, kaka eta abar) sorosleak indarrean dagoen protokoloa jarriko du martxan.

5. Kokapenari dagokionez, erraz ikusteko moduan egon beharko da beti eta ikusarazi egingo da, eta era berean, esparrua eta erabiltzaile guztiak kontrolatzeko moduan izango da. Bera izango da igerilekua dagoen esparruan sartuko den lehena eta irtengo den azkena. Irten aurretik esparrua ikuskatuko du eta bertan erabiltzailerik ez dagoela ziurtatuko du. Era berean, bere lanorduetan ezingo du igerilekua dagoen esparrutik alde egin.

6. Sorosleak ezingo du telefonoa helburu partikularretarako erabili eta ezingo ditu tableta elektronikoak, ordenagailu pertsonalak eta abar erabili. Modu berean, ezingo du egunkaria edo aldizkariak irakurri eta ezta ere gurutzegramak edo arreta galaraziko duen beste jarduerarik egin.

7. Igerilekuak erabiltzeko araudia beteko du eta betetzen dela zainduko du, baita osasun-kontrolaren plana ere.

8. Txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan, jaialdietan... indarrean dagoen araudia eta barne arauak betearaziko ditu.

9. Salbamendu eta sorospen lanetan bera denez agintari gorena, zerbitzua eten eta erabiltzaileak esparrutik atera ahal izango ditu; ahalmena izango du horretarako.

10. Pertsonaren bat artatu behar duenean, botikinera joan edo antzeko beste zerbait egin, eta esparruan lankideren bat baldin badago, laguntza eskatuko dio esparrua zaintzen geratzeko.

11. Lanpostuan txanda hartu behar izanez gero, ezingo du lanlekutik alde egin lankidea etorri eta bere eginbeharrak egiteko prest egon arte eta egon daitezkeen berriak jakinarazi arte.

12. Teknikariei lagunduko die une zehatzetan: ikasleen joan-etorriak, materiala eta abar.

13. Igerilekuaren autokontrol planean jasotakoaren arabera, adierazgarria izan daitekeen edozein gorabehera jaso eta jakinaraziko du.

14. Esparruan dauden argi beharren berri eman beharko dio mantentze-lan zerbitzuari, eta behartuta dago energiaren kontsumo iraunkorra zaintzera, eta beharrezkoa balitz, argiak, berogailua eta abar itzaltzeko eska dezake. Erabiltzaileen ur kontsumoak ere zainduko ditu, eta dutxetan zein iturrietan kontsumo horiek egokiak izan daitezen zainduko du.

15. Zerbitzuan eragina izan dezakeen edozein gorabehera, iradokizun edo hobekuntzaren berri eman beharko die bere arduradunei.

16. Lanlekuan erabiliko duen arropa egokia eta bere eginbeharra egiteko adierazgarria izango da (bainujantzia, kamiseta eta oinetakoak). Ezingo da kaleko arroparekin sartu igerilekua dagoen esparrura eta bertan aldatu.

17. Instalazioak zuzen erabili daitezen eta prebentzio lan gisa, sorosleak instalazioen erabilerari, igerilekua erabiltzeko arauei eta helburu horietarako interesagarri izan daitezkeen gauza guztiei buruzko informazioa emango die erabiltzaileei. Enpresa esleipendunak igerilekuko kaleen okupazioari buruzko seinaleztapena eguneratuta izateko beharra hartzen du bere gain. Horretarako, horren berri emateko kartelak jarri eta aldatuko ditu eta igerilekuko esparruan jarri daitezkeen okupazio panelak beteko ditu. Era berean, igerilekuko erabileraren kontrolari eta okupazioari buruzko kartel informatiboak eta gainerako seinaleak jarriko ditu, eta eguneratuta eduki. Horretarako,

zerbitzuak zuzen funtzionatzeko beharrezko kartelak egiteko eskatuko dio kirol instalazioen arduradunari.

18. Kontrol alorra.

    - Igerileku bakoitzean eta horietako egonlekuetan zenbat pertsona dauden kontrolatuko du, ezarritako gehienezko pertsona kopurua gainditu ez dadin. Edukiera horiek edukiera kontrolatzeko fitxetan jasoko dira.
    - Udal kirol zerbitzuko arduradunek esandako maiztasunarekin eta etengabe baloratu, zaindu eta erregulatuko ditu oinarrizko parametro hauek: tenperatura, Ph-a, kloroa, uraren tenperatura, giroan dagoen hezetasuna, uraren uhertasuna eta maila; eta arazo teknikorik antzemanez gero, berehala jakinaraziko die instalazioen mantentze-lanen arduradunei.
    - Igerilekuetan zein alboko esparruetan izandako edozein gorabeheren berri emango du.
    - Bere zerbitzurako materiala zainduko du eta erabiltzaileek material hori nola erabiltzen duten kontrolatuko du.
    - Monitoreek, kirol teknikariek eta erabiltzaileek materiala leku eta modu egokian lagatzen dutela eta zuzen erabiltzen dutela kontrolatuko du.
    - Erabiltzailea bakoitzak bere materiala (eskuzorroak, hegatsak, arnasa hartzeko tutuak) sartzeko baimena egoera puntualetan emango da eta soroslearen irizpidearen arabera, bera baita beti igerilekuaren erabilpen ona zaindu behar duena.
    - Ezingo da kaleko arroparekin, oinetakoekin, poltsekin eta abar sartu. Instalaziora sartzen diren taldeak adin nagusiko arduradun batekin egon beharko dira esparruan, eta izendatutako espazioa erabili beharko dute jarritako ordutegian.
    - Kaleen erabilera arautuko du honakoak kontuan izanda: igerilekuko barne-araudia, igeriketa saioak egiteko monitoreek izan ditzaketen beharrak eta erabilpen ona eta espazioaren aprobetxamendu ona lortzeko monitoreen iritzia.
    - Botikineko materiala zaindu eta eguneratuko du iraungitako produkturik egon ez dadin eta beharrezko materialik falta ez dadin.

19. Zaintza alorra.

